

**“VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI S.A – EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA EA” (VISESA) SOZIETATEAREN ZUZENDARI NAGUSIAREN EBAZPENA, ZEINAREN BIDEZ EGOITZA ZENTRALEAN INFORMAZIO-SISTEMETAKO TEKNIKARIAREN PLAZA BAT BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUAREN DEIALDIA ONDORIORIK GABE UTZI DEN.**

**IKUSI DA** informazio-sistemetak teknikiaren lan-kontratu mugagabedun lanpostua prozedura irekiaren bidez hornitzeko jarraitu den espedientea, 2020ko maiatzaren 29ko 104. zenbakidun Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako iragarkiaren arabera.

**GERTAERA:** prozedura horrekin batera, antzeko beste hiru deialdi ere egin dira, baina, informazio-sistemen teknikari dagokion prozedura ez bezala, aldi baterako kontratazioaren araubidean betetzen ari diren lanpostu finkoei dagozkie, hortaz, horien deialdi publikoa berehala egin behar da.

**OINARRIA:** Informazio-sistemetak teknikiaren lanpostu hutsa betetzeko deialdia akats edo nahasmen baten ondorioz egin da; izan ere, dagoeneko Euskal Sektore Publikoaren 2020ko laugarren hiruhilekoari dagokion hurrengo lan-eskaintza publikoan alde aurretik sartuta dago. Hautaketa-prozesua 2021eko ekitaldian egingo da, Funtzio Publikoaren Oinarrizko Estatututik ondorioztatzen denaren arabera (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70. artikulua) eta Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak ezarritako irizpideen arabera (71/2017 Dekretua, apirilaren 11koa – 2017ko apirilaren 21eko 76. zenbakidun EHAA)

## **EBATZI DUT**

**Lehenengoa.**- Informazio-sistemetak teknikiaren lan-kontratu mugagabedun lanpostu bat hornitzeko deialdia, 2020ko maiatzaren 29ko 104. zenbakidun Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutakoa, balio gabetzea eta ondorioz gabe uztea.

**Bigarrena.**- Ebazpen onen berri ematea, hala badagokio, aipatutako prozesuan parte hartzeko eskaera egin dutenei; era berea, argitaratutako deialdiaren iragarkiak kendu eta balio gabetze-ebazpen hau behar bezala iragarriko da.

Gasteizen, 2020ko ekainaren 1ean

Sin.: Carlos Quindos Fernández  
VISESAko zuzendari nagusia

